



Amurrioko Udalak onartu berri duen aurrekonturaren inguruko gogoeta egitea guztatuko litzaiguke eta zuekin konpartitu:

1. Ez ditu aintzat hartzen guk azaldutako 10 arrazoiak. Beraz, kontinuitatearen alde egiten dutela, uste dugu, behin ere. Ez diotela lanaren gaiari behar den bezala heltzen ezta prekarietatearenari ere. (Amurriok arabak duen langabezi kopuru bikoizten duelarik). Zerbitzu publikoak pribatizatu egiten dituenak. (gogoratu aurrekontuei helduta udalak dituen eskumenak laga diola ARABAKO FORU ALDUNDIARI asistentzia sozialaren inguruan eta Aldundiak pribatizatu 26,8 milioiren truke).

Jardunaldi erdiko kontratuarekin kontratatutako berdintasun eta normalkuntza linguistikarako teknikariak, eskastzat jotzen dugu. Gainera ez gazteriarako teknikoaren postua betetzen.

2. Inbertsio alorrean, nahiz eta bat etorri ur hornidura sarearen hobekuntzarekin, zaborteziaren eztaletzarekin, argindar publikoarekin eta gasolindegiz zaharrenean egin beharreko errotondarekin, ez gaude ados futbol zelai berriaren eraikuntzarekin (1.130.000 euro). Inbertsio eza nabaria da bai lan talde eta tresneriaren egokitzapenean bai udal biltegian, horrek ekar ditzakeen lan arriskuekin. Ez dira laguntza sozialerako neurri berriak hartzen eta azkenik esan, ez dela hutsik dauden etxeen politikan esku hartzen.
3. Aurrekontu hauek, EAJ-ko gobernu taldearen baietzarekin bakarrik atera ziren. Besteok arrazio desberdinengatik bada ere, abstenitu edo aurka bazkatu genuen.
4. PSOE, gobernuaren sozioa, legealdi guztian zehar aurrekontuak babestu dituenak abstenitu egin zen, berak aurkeztutako emendakin guztiak oposizioak atzera bota zituztakoak.
5. Bere burua gobernu alternatibatzat jotzen duen EH BILDUK, legealdi guztiko aurrekontuen bozketetan abstenitu egin da, aprobazioa ahalbidetuz. (2016-2017) lehenengo bietan emendakin txiki batzuk lortuta beraien abstentzioagatik (13 milioi inguruko aurrekontu baten). Iaz berriz, gure sorpresarako azkenengo momentuan ateratako prentsa ohar baten bitartez, adierazten zuen nola bere abstentzioarekin aurrekontuen aprobazioa bermatzen zuela, behin EAJ-rekin akordio estrategiko bati helduta.
Aurten berriz ere, gure arridurarako, apirilaren 10ean, osoko emendakina aurkeztu zuen esanez mespretxatuak sentitzen zirela, gardentasuna eta parte hartzea ez zirela inondik ageri, inbertsio atala "macro" futbol zelai berria egiteko bideratua zegoela eta ez zela lehentasunezkoa testu inguru sozial eta ekonomikoa hartuta eta bukatzen zuten esanez, aurrekontu horiek ikuspuntu sozial batetik, lurraldearen antolakuntzaren ikuspuntutik, promozio ekonomikoaren ikuspuntutik eta lan sormenaren ikuspuntutik gabezia larriak zituztela.
Hara non, apirilaren 15 ean, politika ekonomikorako komisioan, osoko emendakina erretiratzen dutela eta EAJ-rekin akordio batera heldu direla adierazten duten. Gauza da aurkeztutako aurrekontuak eta aurrera ateratako aurrekontua parekatuz gero ez dagoela aldaketarik justifikatzen duenik ez eta gabezia larri horiek ekiditu duen hobekuntzarik.
6. Azkenik esan, talde guztiok berretzi dugula gure babesaren inbertsioak egiteari hainbat azpiegituratan (errotonda etabar) ez duguna babestuko da aurrekontu kontinuitatearen austeritatearen hildotik, udal zerbitzuen pribatizazioa bermatzen dutenak, eta pertsonak ez dituenak ardatz.

